



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko uztailaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko uztailaren 5ean, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : MATEO Jean François.

Deialdiaren eguna : 2023ko ekainaren 30a

Afitxatze eguna : 2023ko ekainaren 30a

1. ERABAKIA: HAUTESKUNDE ZERRENDAREN KONTROL BATZORDEAREN ERABERRITZEA (5.3 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari azaldu dio hauteskunde zerrendako kontrol batzordeko kideak hiru urterako izendatzen direla eta Herri Biltzarra osoki eraberritzen den bakoitzean. Auzapezak zehaztu du, batzorde horrek aurretiko administrazio helegiteei buruzko iritzia eman eta hauteskunde zerrendaren erregulartasuna bermatu behar dituela.

Gehitu du 1 000 biztanletik beherako herrietan honakoa dela batzordearen osaketa:

- batzorde horretan parte hartzeko prest azaldu diren biltzarkideen zerrendako bat, edo, halakorik ez bada, herri biltzarkide gazteena. Auzapezak, delegazioa duten auzapez orde titularrek eta hauteskunde zerrendetan izen emateentzako delegazioa duten hautetsiek ezin dute batzorde horretako kide izan.

- Prefetak izendatutako administrazioko delegatu bat,

- Justizia Epaitegiko Presidenteak izendatutako delegatu bat.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- Odile FALXA anderea izendatu du hauteskunde zerrendaren kontrol batzordeko kide izateko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko uztailaren 5ean

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/07/13an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/07/13an.